

## Xabier Azanza

# «10.000 euro ez da nahikoa hedabideentzat»

Nafarroako Hezkuntza Sailak kudeatzen duen Euskarabidea erakundeko zuzendaria da Azanza. Ekonomia krisiak eraginda diru iturriak ixtea izan dugu gai nagusia, batik bat, euskarazko hedabideek jasan duten murrizketa larria.

### ONINTZA IRURETA

“Ez dugu gure lana ondo saltzen” esan izan duzu. Zer daukazu saltzeko orain arteko jardunetik?

Urtebete daramat karguan. Nafarroako Euskararen Kontseilua desagertuta zegoen eta orain abian da. Kontseiluak eskatu dio Euskarabideari 2012ra arteko plan estrategikoa egiteko eta otsailan bukatuta egongo da. Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremanik ez zegoen eta orain erabateko lankidetzak daukagu. Administrazioaren euskalduntzean, ulertzen dut euskalgintzako sektore bati iruditzea eman den urratsa kaxkarra izan dela, baina dekretua onartu denetik Nafarroako Gobernuko administrazio lanpostuen %90etan euskara meritutzat hartuko da. Orain arte ez zen %10era iristen. Ez daukat zalantzarik legegintzaldi honetan horrelako adibide gehiago izango ditugula.

#### Zerk du urgentzia?

Europako Kontseiluak denbora darama esanez euskarazko irratia bat legalizatu beharra dagoela Iruñea inguruan. Espainiak urteak dira sinatu zuela Eurokarta. Nafarroako Legebiltzarrak duela bi urte onartu zuen mozioa eskatuz, ez Euskalerrira Irratiaren legalizazioa, baizik eta euskaraz arituko den irratia bati lizentzia ematea. Gai horri irtenbi-



2009rako, euskarazko hedabideentzako diru-laguntzak ia ezerezean geratu dira.

Aurrekontua ez da 10.000 eurora iristen. Aldiz, Euskararen Legeak derrigortzen gaitu hedabideentzako planak egitera diru-laguntzak emateko. 1986tik Nafarroako Gobernuak hedabide horiei 300.000-400.000 euro inguruko laguntzak eman dizkie, eta beraz, zifra horietan ibili behar dugu orain ere. 10.000 euro ez da nahikoa. Konponbidea aurkitu behar da, zeren hedabideek, urtero bezala, laguntza batzuk jaso beharko dituzte.

**Baina euro kopurua hori da. Egia da, zuk esana duzu beste moduren bat aurkitu beharko dela hedabideek diru gehiago izan dezaten.**

dea eman behar zaio, hobe izango da guztientzat: emisorarentzat, entzuleentzat eta Gobernuarentzat berarentzat, azken honi ez baitio batere onik ekartzen irratia kateak lizentziarik gabe segitzea.

Beste gai bat errotulazioarena da. Hezkuntza kontseilariak Euskarabidea sortzerako esan zuen, eremu mistoan euskarak tokia izan zezan errotulazioaren kontua erreformatu egin behar zela. Azaroan presidentek esan zuen euskararen presentzia indartuko dela kalean. Espero dugu laster hala izatea.

Ezin gara iazko egoerara itzuli. 310.000 euroko aurrekontua zuten urte hasieran hedabideek, krisiaren eraginez izoztu egin zen diru-laguntza hori eta urtea amaitu arte, sei hilabetez, hedabideek ez zuten jakin kobratuko zuten ala ez. Gu egunero presionatuak sentitu gara. Azkenean, berandu ordaindu zaie eta... horrek ez du zentzurik.

Aurten ezin gara zulo berean erori. Euskararen Foru Legeak derrigortu egiten gaitu diru-laguntza planak egitera. Hori ezin da egin 9.000 euroekin. Iaz krisiaren

ondorioz 310.000 euroko aurrekontua 240.000ra jaitsi zen moduan, espero dezagun, lehenbailehen, gai izan gaitzezela, 9.000koa 300.000ra igotzeko, edo 150.000ra edo 400.000ra. Baina azkar izan dadila eta azkar banatzeko aukera izan dezagula, hedabideak ez daitezuten urte osoan dirurik izango den ala ez jakin gabe egon. Bestalde, Nafarroako Gobernua ere ez dadila presioak sufritzen egon, gero, azkenean, laguntzak emateko. Emango baduzu eman lehenbailehen.

### Bilkura bereziren bat aurreikusita al duzue?

Otsaila hilabete garrantzitsua izango da, orduan jakingo dugu zenbat diru izango dugun. Nik uste dut dirua izango dela. Ez da zilegi hogeitaz urtez laguntzak jaso eta Euskarabidea sortutakoan laguntzarik gabe geratzea.

### Otsailean jakingo dugu orduan zer-bait gehiago.

Nik uste dut baietz.

### Ttipi-Ttapa telebistak atek itxiko ditu urtarrilaren bukaeran. Desagertzen utziko al zaio?

Nafarroako euskarazko tokian tokiko bi telebistak, seguru nago, egoera ekonomikoaz kezkatuta egongo dira. Alabaina, Lurreko Telebista Digitalaren aroan herri telebistak egoera konplikatuan izango dira. Pentsatzen dut Ttipi-Ttapa telebistaren antzeko egoera izango duela Xaloa telebistak. Azken horrekin bilera egin genuen duela sei hilabete, ikusteko zein aukera dauden Lurreko Telebista Digitalaren esparruan.

Bestalde, saiatzen ari gara LTDren bidez ETB ikus dadin. Oraingoz ezin da lurreko telebista digital bidez ikusi, baina analogikoa desagertzen denean, uste dugu ikusi ahal izango dela.

### Euskara elkarteak ere diru iturri murriztekin geratu dira.

Aurten aurrekontuen jaitsiera orokorra izan da, euskaltegiek, udalek... denek jasoko dute gutxiago. Iaz kultur elkarte denek diru portzentaia bera jaso zuten. Aurten hainbat irizpideren arabera banatuko dugu dirua, saiatuko gara neurten ekintza bakoitzak zenbaterainoko eragina duen euskararen erabileran.

### Aukeraketa gogorragoa egingo duzue.

Kritikoagoak, selektiboagoak izan behar dugu dirua banatzerakoan. Iaz, esate baterako, bi hizkuntzetan museoa errotulatzek eta musika kontzertuak diru kopuru bera jaso zuten. Kontzertua ondo dago, baina momentukoa da, bestea berriz iraunkorra.

**“Euskalgintzan ez da esaten, baina gurasoen erdiek aukeratzen duten eredu euskararik ez da ageri. Horientzako aukera izango da TIL eredu, euskara eta ingelesa elkarrekin izango dira-eta”**

### Udaletako Euskara Zerbitzuetan, batik bat txikiak beldur dira bizirapenaz.

Eremu ez euskalduneko hainbat zerbitzu hedatzea pentsatu dugu. Tafallakoa eta Gareskoa inguruko herrietara zabalduko ditugu. Euskararentzat diru gutxiago egongo dela esaten da, baina ez dakit orain esan dudana inork esan dizun.

Bai, esan didate zerbitzuak hedatzeak zaretela, baina hori egi bihurtzeko dirua ez ote den iritsiko beldur dira.

Ulertzen dut lanean ari diren zerbitzuak kezkatuta egotea. Orain irekitzen direnek baliabide gutxi izango dutela? Bada bai, euskarari eskaintzeko diru gutxi duen teknikaria izango dugu. Baina egoera ekonomikoa hobetzen denean, teknikariak hor segituko du eta uste dugu baliabide gehiago izango dituela.

### TIL ereduaz zein iritzi duzu?

Kontseilariak esan du D eredu hilda dagoela. Horrekin batera esan du G eredu ere hilda dagoela, alegia, euskara ikasgai bezala ere irakasten ez den eredu. Hezkuntza Sailaren asmoa da ingelesa indartzea, gaztelania eta euskara oztopatu gabe. Elizondon jarriko da abian TIL eredu. Euskalgintzan ez da esaten, baina gurasoen erdiek aukeratzen duten eredu euskararik ez da irakasten. Horientzako aukera izango da TIL eredu, euskara eta ingelesa elkarrekin izango dira-eta. Bestalde, euskara ardatz aukeratzen zuten gurasok orain ere gauza bera egiten segi dezakete. Ingelesak ez du indarririk galduko eta honek ez dio euskarari eragingo.

### Euskararen Legeak zenbaterainoko mugimendu aukera dauka, esaterako hizkuntza eremuen gain?

Ni izendatu nindutenean, kontseilariak argi utzi zuen Euskararen Lege ez dela aldatuko. Eztabaidan dagoena da ea eremuz aldatu behar diren hirulau herri. Dena dela, Legebiltzarrak egiten duena ondo egin egongo da, baina badirudi ez duela borondaterik. Euskararen Legeak ez du ezer debeatzen, aldatu nahi badute aldatuko dute. Legearen barruan gauzak egiteko aukera dago. ■

Xabier Azanza hedabideez bideoan

[www.argia.com/multimedia/bideoa/xabier-azanza-euskarabideko-zuzendaria](http://www.argia.com/multimedia/bideoa/xabier-azanza-euskarabideko-zuzendaria)

Babeslea: Hondarribiko Euskara Zerbitzua

